

Greenham Common

Ba al zenekiten Ingalaterran milaka emakume feminista eta bakezaleek 19 urtez base militar bat okupatu zutela, 1981 eta 2000 urteen bitartean? Greenham Common Ameriketako Estatu Batuen (AEB) basea zen, Berkshiren kokatutakoa, eta NATOren aginduz han misil nuklearrak gordeko zirela salatzen hasi zen *Women for Life on Earth* (Lurrari Bizitzaren aldeko Emakumeak) taldeak.

1981eko irailean, 36 emakume harresian kateatu egin ziren. Hala ekin zioten urtebetez mantenduko zuten kanpamentuari. 1982ko irailean gobernu lokalak kanpalekua desegitea agindu zuen, baina emakumeek ez zuten amore eman. Abenduan *Embrace the base* ekitaldian 30.000 emakumek inguratu zuten basearen perimetroa. Baina hori ez zen ekitaldi jendetsuena izan; 1983. urtean 70.000 lagunek osatutako 23 kilometroko giza katea inguruko bi arma fabriketaraino zabaldu zen.

Hamaika etxe huste eta atxilotetei aurre egin zieten. Inguruan kanpamentu berri bat ezarri, hainbat lagun basera sartu eta kanporatuak izan arte dantzaz egiten zuten. Gerraren unibertso maskulinoaren aurrean, emakumeen kultura bakezalea eta zaintzei lotutakoa zela azpimarratzen zuten. Beste ekitaldi batean, partaide guztiak hartz pelutxez mozorrotu ziren, gerraren mehatxuak haurren segurtasuna urratzen zuenaren mezua irudikatzen.

1991n AEBek Greenham Commonetik misilak eraman zituztela eta 1993. urtean basea ixtea erabaki zen arren, emakume multzo baten presentzia mantendu zen 2000. urtera arte, landa hori publikoa bilakatu zedila eskatzeko eta, gerora, antimilitarismoaren memoria gune bezala finkatzeko.

Garaiko hedabideek mugimendu honen garrantzia zalantzan jarri zuten eta familia balore tradizionalak puskatzen zituzten sorgin talde baten karikatura



June Fernández

KAZETARIA

@marikazetari

1991n AEBek Greenham Commonetik misilak eraman zituztela eta 1993. urtean basea ixtea erabaki zen arren, emakume multzo baten presentzia mantendu zen 2000. urtera arte, landa hori publikoa bilakatu zedila eskatzeko eta, gerora, antimilitarismoaren memoria gune bezala finkatzeko

zabaldu zuten. Hauxe zioten: "Haurren segurtasunagatik kezkatuta bazeuden, zergatik ez ziren etxean seme-alabekin geratzen, ume eta guzti base militarra iskanbila egitera joan ordez?". Etxekoandarearen ereduarekin apurtzea eta subjektu politiko bilakatzea zen emakume horien bekataua.

The Guardian egunkariko artikulu batean Beban Kidron kazetariak dio emakumeen kanpamentuak aitortza eskasa izan duela, nahiz eta desobediencia zibilaren eredu paregabea izan. "Greenhamen emakume belandaldi batek esparru publikoan bere ahotsa deskubritu zuen. Inklusibotasuna eta aniztasuna sustatzen zituzten, diskurtso nagusi bakarraren ordez, ikuspegi ugari zabalduz. Gehienek baino lehenago identifikatu zuten politikariek jende arruntaren interesak alde batera utzi eta gerrazale eta nazioarteko negozioen interesen alde egiten zutela".

Gertakari horrek gurean ere oihartzuna izan zuen. Euskal Herriko emakume asanbladetakoa hainbat kide Ingalaterrara joan ziren ekimen horretan parte hartzeko. Inspirazio horrekin 1986an, Eibarreko arma fabrikaren kontrako protesta feminista bat antolatu zuten, eraikinaren inguruan artilezko armiarma bat zabalduz. Begoña Zabalak *Movimiento de mujeres. Mujeres en movimiento* liburuan (Txalaparta argitaletxea) kontatzen du antimilitarismo eta borroka armatuaren inguruko eztabaida oso aberasgarria elikatu zuela mugimendu feministaren barnean. Pentsa, gure herriko testuinguruaz gain, 80ko hamarkadan Erdialdeko Amerikako iraultzen alde egin zuten euskal feministek. Aspaldi irakurri nuen liburua, hala ere, nire memoriatik desagertu egin ziren bai Greenham Common, bai Eibarreko protesta hori. Berriro ere istorio hau ez ahaztea eta oihartzun berrietan parte-hartzea erabaki dut gaur. ■